

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak aurrera egin ahal izateko, ezinbestekoak izango dira funtsezko baliabideak. Horretarako, gure enpresak beteko dituen hainbat puntu aztertu behar dira. Esaterako, baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Dena den, kostuen murrizketa ere atal garrantzitsua izango da gure proiektuak aurrera egiteko.

Baliabide fisikoei dagokionez, gure enpresak hainbat atal ditu, ibilgailuak, sistema informatikoak eta banaketa sarea. Ibilgailuak direla eta, gure enpresak izango du hartzailenganaino iristeko ibilgailu propioa, bezeroak nahi duen postara eskatzeko aukera izango du. Horrela, gure bezeroei erraztuaz eta laguntza emanaz, gure arropak dauden punturaino joan behar izan gabe. Banaketa sareari dagokionez, ibilgailuarekin lotura oso estua du, izan ere garraio bidez eramango ditugu gure produktuak bezeroarengana. Guk izango dugun kamioiarekin salduko ditugu eta garraiatuko ditugu gure proiektuak, horrela bezeroak ez luke kezkatu beharko produktuaren bila joateko, guk eramango diogu berak nahi duen lekura. Baina esanguratsuen, lokala izango da, non gure produktu guztiak ongi gordeta eta segurtasun handia izango duten, bertatik ibilgailuaren bidez bezeroengana iristeko. Sistema informatikoei erreparatuta, gure proiektuak informatika asko erabiliko du, hau da, gure zerbitzuko produktuak saltzeko, aplikazio bat sortuko dugu, honela informatika erabiliz.

Hori gutxi balitz bezala, bezeroek nor garen jakiteko, web orri bat sortuko dugu. Web orri honetan bezeroek gure produktuari buruz dituen iritzi eta hobetu beharrekoak idazteko aukera izango du. Esan daiteke, zailtasun handiena izan dezaketena bezeroek interneta erabiltzeko orduan izango dela, bertatik soilik eskatu daitezkelako eskaerak, baina argi jarriko ditugunez pausuak, batik bat pertsona helduei laguntzeko, nahiko erraz moldatu daitezke webgunearekin. Egia da, baliabideen zailtasuna izango dela pertsona helduen artean batez ere, baina zerbait erraza eta intuitiboa egitea izango da gure helburua. Honela, helduek edo abilezia gutxiago dutenek erabiltzeko aukera izan dezakete.

Bestetik, baliabide intelektualak. Hau oso garrantzitsua izango da gure enpresak fama ona har dezan. Batetik marka, luxuzko arropen alokairua den honetan, ezinbestekoa izango da luxuzko arropa dela jakinaraztea, horregatik jakinarazi eta konfiantza eman behar zaie erosleei jakin dezaten ordaintzen ari diren prezioak kalitatezko predekin bat egingo dutela, eta hauek ez direla iruzurra izango. Patenteak direla eta, beharrezkoak izango dira gure proiektuaren ideia ez zabaltzeko, nahiz eta garestia izan daikenean, inbertitzea erabaki dugu garrantzitsua izan daitekeelako proiektu berritzaile hau. Hori dela eta, ideia hori beste batzuk kopiatu nahi badute, ezingo lukete gure baimenarik gabe egin. Gainera, egile eskubideak markak bezala, bezeroei segurtasuna emango die, honekin, ikusiko lukete gure webgune zein eskaintza fidagarria dela. Horretarako, elkarteak sortzea oso beharrezkoa izango da, luxuzko dendeekin aliantza sortuz, besteak beste Dior, Yves Saint Laurent, Gucci... gure bezeroei ahalik eta segurtasun handiena emateko eta gure enpresan erosten jarraitzeko.

Giza baliabideei erreparatuz, gure produktuak gaitasun komertziala izango du. Esperientzia duten langileekin lan egingo dugu, hau da batez ere formatutako pertsonen bila ibiliko gara. Ikasi ditugun baliabideekin, gure produktua ahalik eta hobekien erakutsiko dugu, horrela bezeroengana hurbiltzeko aukera izango dugu eta arrakastatsua bada, bezero gehiagorengana iristeko beharrezkoa izango da. Eta ez hori bakarrik, internetaren bidez zabalduaz, esaterako Instagramen eta Facebooken, iragarkiak jarriaz geroz eta jende gehiagok inbertituko luke gure proiektuan, gure enpresaren jakinaren gainean baleude.

Amaitzeko, finantza-baliabideak. Gure ordainketa ia guztiak kreditu-linearekin izango dira. Kontuan hartu behar da, aplikazio baten bidez eskeiniko ditugula gure produktuak. Horregatik, aplikazioan bertan ordaintzeko aukera egongo da, honela, bezeroentzat errazagoa izango da ordainketa hauek egitea, eta guretzat ere errazagoa izango da diru kopuru hau babesean izateko. Baina, kasu batean, bezeroa gurekin harremanetan jarriko balitz esanez ezin duela kreditu-linearekin ordaindu edo zailtasunen bat badu honela ordaintzeko, justifikatua dagoen bitartean, esku diruz ordaindu dezake bezero horrek.

Hau guztia kontuan izanik, Arhane komunikaziorako eta antolaketarako egokiena izango dela uste dugu. Bestetik, Elaia informatika eta programaziorako oso abila da, horregatik lan hau egokituko zaio. Azkenik, Ibaiek, bezeroekin harremanetan jartzeko xarma handia duenez eta bidai luzeak egiten ondo moldatzen denez, berak entregatuko ditu bezeroen eskakizunak.